ZESTOAKO UDALA

# ALKATETZA DEKRETUA

## . zk

| | | |
|---|---|---|
| **MIKEL ARREGI URRUTIA,** Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunak, ondorengoa kontuan hartuz:<br>a) Zestoako Aizarna auzoko kultur etxerako igogailu baten hornidura kontratatzeko beharra.<br>b) Preskripzio teknikoak landu dira.<br>c) Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituzte.<br><br>**EBAZTEN DU**<br><br>**Lehena.-** Baldintza administratiboen plegua onartzea.<br><br>**Bigarrena.-** Pleguak argitaratu eta lehiaketa martxan jartzea.<br><br>**Hirugarrena.-** Tokiko Gobernu Batzarrak ospatuko duen hurrengo saioan Alkate Ebazpen honen berri ematea. | | **DON MIKEL ARREGI URRUTIA** Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zestoa, teniendo en cuenta los siguientes extremos:<br>a) Necesidad de contratar el suministro de un ascensor para la casa de cultura del barrio de Aizarna de Zestoa.<br>b) Se han elaborado las prescripciones técnicas.<br>c) Se han emitido los informes del secretario e Interventor.<br><br>**RESUELVE**<br><br>**Primero.-** Aprobar el pliego de clausulas administrativas particulares.<br><br>**Segundo.-** Publicar los pliegos y poner en marcha el concurso.<br><br>Tercero.- Dar cuenta de la presente Resolución de Alcaldía en la próxima sesión que celebre la Junta de Gobierno Local |

| ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA | | PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES |
|---|---|---|
| **GAIA: ZESTOAKO UDALARENTZAT IGOGAILU BATEN HORNIDURA-KONTRATUA,** | | **TEMA: CONTRATO DE SUMINISTRO DE UN ASCENSOR PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZESTOA** |
| **I.- KONTRATUAREN EDUKIA** | | **I.- CONTENIDO DEL CONTRATO** |
| **1. KONTRATUAREN XEDEA** | | **1. OBJETO DEL CONTRATO** |
| Plegu honen arabera egiten den kontratuaren helburua **Zestoako Udalarentzat igogailu baten hornidura** izango da.<br><br>Kontratua burutzerakoan Baldintza Administratibo Bere- zien agiri honetan, Baldintza Teknikoen agirian ezarritakoa eta udal teknikariek emandako irizpideak izango dira kontuan.<br><br>Hornidura honek kontuan hartzen ditu lan hauek: hornidura bera, garraioa, eta instalakuntza Baldintza Teknikoen Agirietan zehazten den lekuan. | | El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto el **suministro de un ascensor destinado al Ayuntamiento de Zestoa.**<br><br>El contrato se ejecutará de conformidad con lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en el Pliego de Prescripciones Técnicas y con sujeción a las directrices de los/las técnicos/as municipales<br><br>Dicho suministro comprende tanto su suministro como el transporte e instalación del mismo en el lugar que se detalla en el Pliego de Prescripciones Técnicas. |
| Kontratuaren xedeari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: 45313100-5 (Igogailuen instalakuntza) | | Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 45313100-5 Instalación de ascensores |
| Kontratu honetarako, ez da sortarik zehaztu, espedienteko justifikazio txostenean arrazoitu denaren ildotik. | | El objeto del contrato no se divide a efectos de su ejecución en los lotes por las razones expuestas en el informe de justificación que obra en el expediente de contratación. |
| **2.IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA** | | **2. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO** |
| Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. | | El contrato que en base a este pliego se realice tendrá carácter administrativo, y se regirá por el presente pliego y el resto de la documentación técnica que lo acompaña. |

| | | |
|---|---|---|
| Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak. | | En todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público y, en todo lo que no se oponga a la citada Ley, se aplicará lo establecido en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre; en el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público; y en las demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas. |
| Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna. | | En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego. |
| **3. EXEKUZIO EPEA ETA LEKUA** | | **3. PLAZO DE EJECUCIÓN Y LUGAR** |
| Kontratuaren xedea duen hornidura-lekua:<br>• Aizarna auzoko kultur etxean, 20749 (Gipuzkoa) | | El lugar de suministro del bien objeto del contrato será:<br>• Casa de cultura del barrio de Aizarna, 20749 (Gipuzkoa) |
| Igogailua eman eta jartzeko epea, kontratua sinatzen den egunetik **4 HILABETETAKOA** izango da. | | El plazo para la entrega y colocación del ascensor será de **4 MESES** desde la formalización del contrato. |
| Igogailua fabrikatu eta instalatu aurretik, dagoen hutsunearen neurriak egiaztatuko dira. | | Antes de la fabricación e instalación del ascensor se comprobarán las medidas del hueco existente. |
| Kontratu honen xedea exekutatzeko guztiko epea dagozkion obren exekuzioaren menpe egongo da. Horretarako, obraren zuzendaritzarekiko koordinazioa etengabekoa izango da. Zuzendaritzak igogailua instalatzeko lanak koordinatuko ditu. Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko da, kontratistak egindakoari gehitzeko. Dena dela, igogailua instalatuta eta behar bezala erabiltzeko moduan egon beharko da, Zestoako Udalak obren harrera egin baino lehen. | | El plazo total de ejecución del objeto del presente contrato estará en función de la ejecución de las obras correspondientes, debiendo estar en contacto permanente con la dirección de la obra y contratista, que irán coordinando las labores de la instalación del ascensor. Deberá redactarse un Plan de Seguridad y Salud, que se sume al que presente el contratista. No obstante, el ascensor deberá estar instalado y en perfecto estado de funcionamiento antes de la recepción de las obras por parte del Ayuntamiento de Zestoa |

| | | |
|---|---|---|
| Aipatu epea igarotzen denean, kontratista berandutzan dela iritziko da, aurretik udalaren galdapenik beharrez- koa izan gabe. | | El/la contratista se entenderá incurso/a en mora por el transcurso de los plazos citados, no siendo necesaria intimación previa por parte del Ayuntamiento. |
| **4. KONTRATUAREN PREZIOA** | | **4. PRECIO DEL CONTRATO** |
| Era berean, SPKLren 101.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, lote guztien balio zenbatetsia kontuan hartuta eta BEZa kenduta hogeita hiru mila, zortziehun eta hogeita hamazortzi eta hirurogeita hamabost euro **(23.838,75 €)** da kontratuaren balio zenbatetsia. | | De conformidad con lo establecido en el art. 101.1.a) de la LCSP el valor estimado del contrato, teniendo en cuenta el valor global estimado de la totalidad de los lotes, y excluido el IVA, es de veintitrés mil ochocientos treinta y ocho con setenta y cinco euros **(23.838,75€).** |
| Igogailuaren horniduraren lizitaziorako oinarrizko aurre- kontua guztira HOGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA LAU ETA LAUROGEITA ZORTZI euro da **(28.844,88€),** BEZa barne. | | El presupuesto de licitación del suministro del ascensor es de VEINTIOCHO MIL OCHOCIENTOS CUARENTA Y CUATRO CON OCHENTA Y OCHO euros **(28.844,88€)**, IVA incluido. |
| Lizitatzaileek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako, kontrataren prezioak ez ezik, kontzeptuak zergapetzen dituzten era guztietako zergei dagozkien kuotak ere sartuko dira. | | En las propuestas que formulen los/las licitadores/as se entenderán incluidos, a todos los efectos, no sólo los precios de la contrata, sino también las cuotas correspondientes a los tributos de toda índole que graven a los diversos conceptos. |
| Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zerga banakatuta agertu beharko da eskaintzetan, eta kontratuari aplikatu beharreko mota eta zenbatekoa adierazi beharko dira, araudi erregulatzailearen arabera. | | No obstante, el Impuesto sobre el Valor Añadido deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora. |
| **5. KONTRATUAREN PREMIA, EGOKITASUNA ETA KONTRATAZIOAN ERAGINKORTASUNA** | | **5. NECESIDADES ADMINISTRATIVAS A SATISFACER MEDIANTE EL CONTRATO** |
| Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan, alegia, exekuzio proiektuan justifikatu dira, 2017ko SPLKko 28. artikuluari jarraikiz, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak. | | En la Memoria contenida en los Proyectos de Ejecución de las obras se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la Ley de Contratos del Sector Público, los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta. |

| 6. FINANTZAKETA | | 6. FINANCIACIÓN |
|---|---|---|
| Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeak eragingo dizkion betebehar ekonomikoei aurre egiteko; 2023rako aurrekontuko ondorengo partidan:<br>1 0100.601.20.333.00 2023 | | Existe crédito adecuado y suficiente para atender a las obligaciones económicas que se deriven para el Ayuntamiento del cumplimiento de este contrato, siendo su consignación presupuestaria para el 2023 la siguiente: 1 0100.601.20.333.00 2023 |
| **7. NOLA ORDAINDU** | | **7. FORMA DE PAGO** |
| Horniduraren prezioa kontratua sinatzen denean ordainduko da, dagokion faktura behar bezala konformatuta aurkeztu ondoren, 30 eguneko epean transferentzia eginda. | | El pago del precio del suministro, se realizará a la firma del contrato, previa presentación de la correspondiente factura debidamente conformada, mediante transferencia en el plazo de 30 días. |
| Esleipendunak faktura **formatu elektronikoan aurkeztuko du,** *Gipuzkoako Fakturen Sarrera Puntu orokorraren* (FSPOe) bitartez (https://gfaegoitza.net/SarreraPuntua), Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legeak ezarritako aurkezteko moduan. | | El adjudicatario presentará la factura **en formato electrónico**, a través del *Punto General de Entrada de Facturas de Gipuzkoa (PGEFe) (https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua),* en la forma de presentación establecidos en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas en el Sector Público. |
| Unitate organikoen DIR3 kodeak:<br>• Zestoako Udala:<br>• Organo kudeatzailea: L01200277<br>• Unitate tramitatzailea: L01200277<br>• Kontabilitate bulegoa: L01200277 | | Códigos DIR3 de las unidades orgánicas:<br>• Ayuntamiento de Zestoa:<br>• Órgano gestor: L01200277<br>• Unidad tramitadora: L01200277<br>• Oficina contable: L01200277 |
| SPKLren 198.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esleipendunak bermea emanez ziurtatu beharko du ordainketa. | | De acuerdo con lo previsto en el artículo 198.3 LCSP, el adjudicatario deberá asegurar el pago mediante la prestación de garantía. |
| **8. KONTRATAZIO ORGANOA** | | **8. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN** |
| 2017ko SPKLko bigarren xedapen gehigarria jarraituz kontratu honen kontratazio organoa alkatetza da. | | De conformidad con la Disposición Adicional Segunda LCSP 2017, para el presente contrato el órgano de contratación es la Alcaldía. |
| **9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA** | | **9. REVISIÓN DE PRECIOS** |
| Kontratuaren prezioa ezingo da berrikusi, SPKLko 103 artikuluak xedaturikoarekin bat etorriz. | | No procede la revisión de precios de acuerdo con el artículo 103 LCSP 2017. |

| | | |
|---|---|---|
| **10. BERMEAK** | | **10. GARANTÍAS** |
| Prozedura honetan ez da eskatzen behin betiko bermerik jartzea, SPKLren 159.6.f) artikuluan prozedura ireki sinplifikatu laburdurako ezarritakoa aplikatuz; halaber, behin-behineko bermea salbuetsita dago prozedura ireki sinplifikatu guztietan, lege horren 159.4.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. | | En este procedimiento no se exige la constitución de garantía definitiva, en aplicación de lo previsto en el artículo 159.6.f) de la LCSP para el procedimiento abierto simplificado sumario, además de estar excluida la garantía provisional de todos los procedimientos abiertos simplificados, según lo preceptuado en el artículo 159.4.b) de la citada Ley. |
| **11. KONTRATATZAILEAREN PROFILA** | | **11. PERFIL DEL CONTRATANTE** |
| 2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau, preskripzio teknikoen pleguak eta proiektua barne. Kontratua esleitu aurretik, kontratuaren xedea zehatz-mehatz zehazten duen proiektua egin, berrikusi, onartu eta birplanteatu behar da. Proiektua toki-erakundean eskumena duen kontratazio-organoak onetsi behar du. | | Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de esta Entidad Local, se facilita a través del Perfil de Contratante de la misma toda la información relativa a su actividad contractual, incluyendo los anuncios relativos al presente contrato, el presente pliego, pliego de prescripciones técnicas y el proyecto. Con carácter previo a la adjudicación del contrato deberá haberse elaborado, supervisado, aprobado y replanteado el proyecto que defina con precisión el objeto del contrato, aprobación que corresponde al órgano de contratación competente de la Entidad Local. |
| Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko informazio berezia. | | El Perfil incluye tanto la información de tipo general precisa para relacionarse con el órgano de contratación de la Entidad Local, como puntos de contacto, números de teléfono, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y pliegos de condiciones, así como la información particular relativa a los contratos que celebre. |
| **II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA** | | **II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR** |
| **12. JARDUNBIDEA ETA ESLEIPEN MODUA** | | **12. PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN** |
| Prozedura irekia erraztu sumarioan esleituko da kontra- tua, eta enpresaburu interesdun guztiek aurkez dezake- te beren proposamena; baina betiere baztertuta geratzen da lizitatzaileekin kontratuaren baldintzak negoziatzeko aukera. | | La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto simplificado sumario, en el que toda persona empresaria interesada podrá presentar una pro- posición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato con los licitadores. |

| | | |
|---|---|---|
| Adjudikazio-irizpide anitz erabiliz adjudikatuko da kon- tratua, kalitate-prezio erlazio onena bilatzea oinarri har- tuta, hamahirugarren klausulan zehazten denarekin bat etorriz. | | La adjudicación del contrato se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio de conformidad con lo que se establece en la cláusula treceava. |
| **13. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA** | | **13. ACREDITACIÓN DE LA APTITUD PARA CONTRATAR** |
| Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek, baldin eta ez badaude sartuta SPKLren 71. artikuluan kontratatzeko ezarritako debekuetako batean ere, eta **Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroan inskribatuta badaude**, oro har SPKLren 159.4 artikuluan prozedura ireki sinplifikaturako eskatzen den bezala. | | Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP, y **estén inscritas en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público, o en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi**, tal como se exige, en general, para el procedimiento abierto simplificado, en el artículo 159.4 de la LCSP. |
| Halaber, nork bere izenean edo baimendutako ordezkari baten bitartez har dezakete parte (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko bateko kideren bat aritzen bada haren ordezkari, agiri bidez frogatu beharko du baduela horretarako ahalmena. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere eragiten diote | | Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra alguna de sus personas miembros, deberá justificar documentalmente que está facultada para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la persona representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. |
| **14. PROPOSAMENAK, DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO EPEA** | | **14. PROPOSICIONES, DOCUMENTACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN** |
| Kontratazio honen espedientea, espedienteari erantsitako dokumentazio teknikoa, pleguak eta dokumentazio osagarria Zestoako Udalaren Kontratatzailearen Profilaren bidez eskuratu ahal izango dira, Euskadiko Kontratazio Publikoaren plataforman lizitazioa iragartzen denetik eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte. | | El acceso al expediente de esta contratación, la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y a la documentación complementaria podrá realizarse a través del Perfil de Contratante del Ayuntamiento de Zestoa, a partir del anuncio de la licitación en la plataforma de Contratación Publica de Euskadi y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones. |

| | | |
|---|---|---|
| **Proposamenak bitarteko elektronikoak soilik erabiliz aurkeztuko dira,** 2017ko SPKLren hamabostgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunekin bat etorriz, kontratatzailearen profilean argitaratutako lizitazio-iragarkian adierazitako epearen barruan. | | **La presentación de proposiciones se llevará a cabo utilizando exclusivamente medios electrónicos,** de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de las LCSP 2017, dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante. |
| Proposamenak aurkezteko **epea HAMAR (10) EGUN naturalekoa** izango da kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. | | Las proposiciones deberán presentarse**, durante el plazo de DIEZ (10) DÍAS HÁBILES**, contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante. |
| Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak arbitratuko dira izaera hori bermatzeko, proposamenak irekitzen diren unera arte. | | Las proposiciones será secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones |
| Proposamenak elektronikoki aurkezteko informazio eta zehaztasun teknikoak, baita dataren zifratze eta balidatzea ere, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan sartuta daude (www.contratacion.euskadi.eus). | | La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus) |
| Zerbitzu horiek erabiltzeak ondokoa esan nahi du:<br>1. Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak<br>2. Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa<br>3. Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa. | | La utilización de estos servicios supone:<br>1. La presentación de ofertas de forma telemática por el licitador.<br>2. La custodía electrónica de ofertas por el sistema.<br>3. La apertura y evaluación de la documentación a través de la Plataforma. |
| Proposamenak bitarteko elektronikoz bidaltzea bi fasetan egin ahalko da; lehenik, proposamenaren aztarna elektronikoa igorriko da – hori jasotzearekin egintzat joko da aurkezpena ondorio guztietarako -, eta, ondore, eskaintza bera 24 orduko epean, gehienez ere. Bigarren igorpen hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da. | | El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de la oferta, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada. |

| | | |
|---|---|---|
| Eskaintzaren aztarna elektronikoa datu-multzo bat da zeinak eskaintzaren edukiarekin argi eta garbi lotzea bermatzen duen, eta eskaintzaren edukian egon daitezkeen aldaketak detektatzea ahalbidetzen duen, hala haren osotasuna bermatuz. Espedientean txertatu beharreko dokumentuen kopia elektronikoek bete egin beharko dute ondorio horretarako indarrean dagoen administrazio prozedura erkidearen alorreko legedia, bertan ezarritako guztiekin | | Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, surtiendo los efectos establecidos en la misma |
| Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak. | | Cada licitador no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurara en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas. |
| Administrazio Baldintza Zehatzen Agirian xedatutakoari egokitu beharko zaizkio interesdunen proposamenak, eta haiek aurkezteak esanahi duena da enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen duela klausula edo baldintza horien guztien edukia eta orobat proiektua eta preskripzio teknikoen orria, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe. | | Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a lo previsto en el pliego de cláusulas administrativas particulares, y su presentación supondrá la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de dichas cláusulas o condiciones, así como del proyecto del pliego de prescripciones técnicas, sin salvedad o reserva alguna. |
| **AURKEZPEN ELEKTRONIKOA** | | **PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA** |
| Erabiltzaileen Laguntza Zentroa<br>• 945 016 298 telefono zenbakia<br>• Interneteko helbidea: http//www.contratacion.euskadi.eus<br>• Posta elektronikoko helbidea: laguntzakpe@euskadi.eus (orriko lehiaketa elektroniko arloan) | | Centro de Atención a usuarios<br>• Teléfono 945 016 298<br>• Dirección de Internet: http// www.contratacion.euskadi.eus<br>• Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus (en el área de concurso electrónico de la página) |

| | | |
|---|---|---|
| **15. LIZITATZAILEEI INFORMAZIOA** | | **15. INFORMACIÓN A LOS LICITADORES** |
| Kontratazio organoak 2017ko SPKL 138.3 artikuluak xedaturiko jarraituz, lizitazio prozeduran interesdunak informazio gehigarria edo osagarria eskatzen badu, Administrazio kontratatzaileak, proposamenak jasotzeko ezarririko muga-eguna baino gutxienez sei egun lehenago eman beharko du, betiere eskaera hori aurreko datarekiko gutxienez 12 egun lehenago aurkezten bada. | | El órgano de contratación proporcionará a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, aquella información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que estos soliciten, a condición de que la hubieran pedido al menos 12 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones (art. 138.3 LCSP 2017). |
| **16. NOLA AURKEZTU ESKAINTZAK** | | **16. FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS OFERTAS** |
| Lizitazioan parte hartzeko proposamenak fitxategi elek- troniko bakar batean (A) aurkeztuko dira, guztiak ere lizitatzaileak sinatuak. Artxibo elektronikoetan adierazi- ko da artxiboaren izendapena eta legenda hau: «**ZESTOAKO UDALARENTZAKO IGOGAILU BATEN HORNIDURA KONTRATUA PROZEDURA IREKI ERRAZTU SUMARIO BIDEZ EGINGO DEN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZE- KO PROPOSAMENA.** | | Las proposiciones para tomar parte en la licitación se pre- sentarán en un único archivo electrónico (A), firmado por la licitadora, en los que se hará constar la denominación del archivo y la leyenda **“PROPOSICIÓN PARA LICITAR A LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO DE UN ASCENSOR PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZESTOA MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABREVIADO SUMARIO”.** |
| Artxibo elektroniko bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kautotutako kopiak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera. | | Los documentos a incluir en cada archivo deberán ser originales o copias autentificadas, conforme a la Legislación en vigor. |
| Artxibo bakoitzean agiri hauek sartu behar dira, zenbakiz zerrendatuta: | | Dentro de cada archivo, se incluirán los siguientes documentos, así como una relación numerada de los mismos: |
| **“A” FITXATEGI ELEKTRONIKOA “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA ETA ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI KUANTIFIKA DAITEZKEEN AGIRIAK.”** | | **ARCHIVO ELECTRÓNICO «A» “DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA, Y PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN CUANTIFICABLE DE FORMA AUTOMÁTICA”** |
| Fitxategi horrek honako dokumentu hauek jasoko ditu: | | Este archivo contendrá los siguientes documentos: |

| | | |
|---|---|---|
| **a Posta elektronikoko helbide gaitua.** | | **a Dirección de correo electrónico habilitada.** |
| Posta elektronikoko helbide gaitu bat izendatu behar da, SPKLren hamabostgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; helbide horretara igorriko dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. | | Designación de una dirección de correo electrónico habilitada, de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP, en la que se realizarán las notificaciones derivadas de este expediente de contratación. |
| **b Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena**. | | **b Declaración responsable del licitador**. |
| Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du betetzen dituela bai administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak, bai kontratua lortzeko klausula-agiri honetan ezarritako eskakizunak, bereziki 13. klausulan. | | En esta declaración el licitador indicará que cumple las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración, así como los requisitos para acceder al contrato establecidos en este pliego y, en particular, en la cláusula 13 del mismo. |
| I. Eranskineko ereduari jarraikiz aurkeztuko da erantzukizunpeko adierazpena | | La declaración responsable se presentará conforme al modelo incluido en el Anexo I. |
| Dena den, prozedura ondo burutzen dela bermatzeko, kontratazio-mahaiak edo kontratazio-organoak lizitatzaileei eska diezaieke dokumentazioa aurkez dezaten kontratuaren adjudikazioduna izateko klausula-agiri honetan eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko, kontratua adjudikatu aurreko edozein unetan. | | No obstante, el Órgano o la Mesa de Contratación, en orden a garantizar el buen fin del procedimiento, podrá recabar, en cualquier momento anterior a la adjudicación, que los licitadores aporten documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones referidas en este pliego para ser adjudicatario del contrato. |
| **c) Aldi baterako enpresa-elkarte gisa kasuan** | | **c) En el caso de Union temporal de empresas.** |
| Aldi baterako enpresa-elkarte gisa (ABEE) aurkezten diren eragile ekonomikoen kasuan, hura osatzen duten partaideetako bakoitzak aurkeztu beharko du bere erantzukizunpeko adierazpena. Halaber, konpromisoa aurkeztu beharko dute adjudikazioa lortuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko, eta zehaztu beharko dute partaide bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean. | | En el caso de operadores económicos que concurran en unión temporal de empresas (UTE), cada uno de los integrantes deberá aportar su propia Declaración responsable. Igualmente, deberán aportar el compromiso de constituir formalmente la UTE caso de resultar adjudicatarios del contrato, y deberán especificar los nombres, circunstancias y participación de cada uno de ellos en dicha UTE. |
| d) Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena. | | d) En los casos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 75 de la LCSP, el licitador se base en la solvencia y medios de otras entidades, cada una de ellas también deberá presentar una Declaración responsable. |

| | | |
|---|---|---|
| e) **Automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak:** | | e) **Criterios evaluables automáticamente:** |
| II. ERANSKINEAN datorren ereduaren arabera osatutako adierazpena (Agiri honetako 19. Klausulan ezarritakoetatik A, adjudikazio-irizpideak). | | Declaración ajustada al modelo que se adjunta (ANEXO II) (Criterios de adjudicación A,recogidos en la cláusula 19. del presente pliego). |
| **17. KONTRATAZIO MAHAIA** | | **17. MESA DE CONTRATACIÓN** |
| Kontratazio mahaia honela osatuko da: | | La Mesa de Contratación estará integrada del modo siguiente: |
| **EPAIMAHAIBURUA**:<br>Zestoako Udaleko Alkate-Lehendakaria, edo bere ordezko zinegotzia. | | **PRESIDENTE**:<br>El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zestoa o el concejal en quien delegue. |
| **BOKALAK:**<br>- Udal Idazkari-kontuhartzailea edo bere ordezko funtzionarioa.<br>- Udal arkitekto teknikoa edo bere ordezkoa funtzionarioa.<br>- Zestoako Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo horren ordezko funtzionarioa. | | **VOCALES:**<br>- El Secretario - Intervertor del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue.<br>- Arquitecto Técnico municipal o funcionario en quien delegue.<br>- Técnico de Administración General de Secretaria del Ayuntamiento de Zestoa o funcionario en quién delegue. |
| **IDAZKARIA**:<br>- Zestoako Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikaria edo horren ordezko funtzionarioa. | | **SECRETARIA:**<br>- Técnico de Administración General de Secretaria del Ayuntamiento de Zestoa o funcionario en quién delegue. |
| Halaber, udal teknikari guztiek parte hartu ahal izango dute Kontratazio Mahaian, baldin eta Mahaiak, aholkularitza lanak egiteko, horien parte hartzea eskatzen badu. | | Podrán asistir, además, todos/as aquellos/as técnicos/as municipales cuya presencia sea solicitada por la Mesa para ejercer labores de asesoramiento. |
| Udal talde politikoetako bozeramaileak gonbidatu gisa, ahotsarekin eta botorik gabe, Kontratazio Mahaiko bilkuretan parte hartzeko aukera izango dute. | | Los portavoces de los grupos políticos municipales podrán participar como invitados, con voz pero sin voto, en las sesiones de la Mesa de Contratación. |
| Kontratazio-organoak hartzen dituen ebazpenak exekutiboak dira, dagokion auzi organoaren aurrean kontratistak duen aurkaratzeko eskubidearen kalterik gabe. | | Las resoluciones adoptadas por el órgano de contratación son inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio de la potestad de impugnación que tenga el contratista frente al órgano judicial correspondiente. |

| **18. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA** | | **18. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES** |
|---|---|---|
| Proposamenak aurkezteko epea igarota, kontratazio- mahaiak honako jardun hauek egingo ditu, saio bakar batean: | | Vencido el plazo de presentación de proposiciones, la Mesa de Contratación, en una única sesión, llevará a cabo las siguientes actuaciones: |
| 1.- Gutun-azal elektronikoa irekiko du, eta egiaztatuko du hartan jasotako dokumentazioa, kontratu hau lortzeko eskakizunak betetzeari dagokiona zein adjudikazio-irizpideei dagokiena. | | 1º.- Abrir el sobre electrónico y comprobar la documentación incluida en el mismo referida al cumplimiento de los requisitos para acceder a este contrato y a los criterios de adjudicación. |
| Horri dagokionez, dokumentazio horretan akatsak edo gabeziak zuzendu behar badira, mahaiak sei egun balioduneko epea emango du, gehienez, zuzenketak egiteko, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera (zeinak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen baitu). | | A estos efectos, si resultara precisa la subsanación de errores u omisiones en esta documentación, la Mesa concederá para efectuarla un plazo máximo de seis días hábiles, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 del RD 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| 2.- Baztertu egingo ditu klausula-agiriko eskakizunak eta betebeharrak betetzen ez dituzten eskaintzak, halakorik badago. | | 2º.- Excluir las ofertas que, en su caso, no cumplan los requisitos y exigencias del pliego. |
| 3.- Eskaintzak balioetsiko ditu; haietako bakoitzak lortutako guztizko puntuazioa ezarriko du, eta puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu. | | 3º.- Valorar las ofertas, establecer la puntuación total obtenida por cada una de ellas y clasificarlas por orden decreciente. |
| 4.- Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen aldeko adjudikazio-proposamena egingo du. | | 4º.- Realizar la propuesta de adjudicación a favor del licitador con mejor puntuación. |
| Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte. | | La propuesta de adjudicación del contrato no creará derecho alguno a favor del licitador propuesto, que no los adquirirá, frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato. |

| | | |
|---|---|---|
| Puntuaziorik onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza nabarmenki baxuegia dela uste izanez gero, 149. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzeagatik, artikulu horretan ezarritako prozedurari jarraituko dio; dena den, ezingo da izan 5 egun baliodun baino luzeagoa lizitatzaileak bere eskaintza justifikatzeko duen epea, dagokion komunikazioa igortzen zaionetik. | | En el caso de que la oferta del licitador que haya obtenido la mejor puntuación se presuma que es anormalmente baja por darse los supuestos previstos en el artículo 149, la Mesa seguirá el procedimiento previsto en el citado artículo, si bien el plazo máximo para que justifique su oferta el licitador no podrá superar los 5 días hábiles desde el envío de la correspondiente comunicación. |
| Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak. | | De todo lo actuado se dejará constancia en el expediente mediante las correspondientes actas que deberán extenderse necesariamente. |
| 5.- Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistrora edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialera joko du, eta kontratua adjudikatzeko proposatutako lizitatzailearen datuak egiaztatuko ditu: haren izaera eta gaitasuna. | | 5º.- Acceder al Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi o al Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público y, en cuanto al licitador propuesto para la adjudicación del contrato, comprobar la veracidad de los datos referidos a la personalidad y la capacidad. |
| **19. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK** | | **19. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN** |
| Hona hemen kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzak balioesteko irizpideak, garrantzia handiena duenetik txikiena duenera zerrendatuta, eta esleitzen zaien haztapenaren arabera: | | Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del procedimiento abierto relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes: |
| **A) AUTOMATIKOKI EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK** | | **A) CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA** |
| **1.- Eskaintza ekonomikoa. Kontratu osoari dagokion eskainitako prezioa: gehienez 80 puntu** | | **1.- Oferta económica. Precio ofertado para la ejecución de la totalidad del contrato: máximo 80 puntos** |
| Proposamen ekonomikoa balioesteko, ondoren deskribatzen den formula aplikatuz kalkulatuko da puntuazioa: | | Para la valoración de la propuesta económica, la puntuación en cada uno de los casos se calculará aplicando la siguiente fórmula: |
| 1.- Lizitazio-aurrekontutik behera % 0 eta% 10 artean egin duten proposamenei dagokienez, balorazioa honela aterako da: egin duten eskaintza ekonomikoak duen beherapenari –%tan adierazia– bider 3,4 puntu. Beraz, balorazio-proposamenaren kopuru bera adierazi duten proposamenek 0 puntu lortuko dituzte, eta % 10eko beherapena aurkeztu duen proposamenak, berriz, 75 puntu lortuko ditu. | | 1.- Para las propuestas económicas que se encuentran entre el 0% y el 10% de baja, respecto al presupuesto de licitación, la valoración se obtendrá multiplicando la baja de la oferta económica expresada en % por 3,4 puntos. Por lo tanto las propuestas que coincidan con el presupuesto de valoración obtendrán 0 puntos y la propuesta que presente una baja del 10% obtendrá 75 puntos. |

| | | |
|---|---|---|
| 2.- Lizitazio-aurrekontutik behera % 15a baino gehiagoko beherapena egin duten proposamenei dagokienez, balorazioa honako baloreen arteko interpolazio linealaren bidez lortuko da:<br>• A- % 10eko beherapenak, 75 puntu.<br>• B- Proposamenik ekonomikoenak, 55puntu. | | 2.- Para las propuestas económicas con una baja mayor al 15% respecto al presupuesto de licitación, la valoración se obtendrá mediante interpolación lineal entre los valores siguientes:<br>• A- Baja del 10% con 75 puntos.<br>• B- Proposición más económica con 55puntos. |
